

ASTRONOMIA. 'Scorpius-Centaurus OB Asoziazioa' Lurretik hurre pasatzean itsasoko zenbait espezie desagertu ziren


Supernoba batek ozono geruzaren zati bat kaltetu zuen duela bi milioi urte

Jesus Maiz Apellaniz donostiarrak gidatu taldeak teoria ondu eta Washingtonen aurkeztu du

Juanma Sarasola | DONOSTIA

American Astronomics Society-ren Washingtongo bilkurak Zientziari, eta Astronomiari zehazkiago, ekarpen oparoak egiten ari zaizkio egunotan. Oraingoan euskal herritar bat dugu albiste, berak eta bere lankideek atondu duten teoria bati esker. Jesus Maiz Apellanizek gidatutako ikertzaile taldeak herenegun AEBetako hiriburuan ezagutzera eman zuenez, litekeena da duela bi milioi urte Lurretik gertu igaro zen supernoba batek ozono geruza kaltetu izana eta ozeanoetako hainbat espezie desagerraraztea.

Teoria berria Jesus Maiz Apellaniz astrofisikariak gain, Narciso Benitez —Johns Hopkins Unibertsitatekoa— eta Matilde Cañelles —AEBetako Osasun Institutukoa— ikertzaile espainiarrek ondu dute. Diziplina arteko ikerketa izan da, astronomia, geologia eta paleontologia arloak landu baitituzte. Ikertzaileen esanetan datu multzo osoa lotu zuena, «supernoba bat osatzeko gai zen izar handi askodun konglomeratu bat gure eguzki sistematik hurbil pasatu zela jakitea izan zen».



J. HUGHES / RUTGERS/ CXC / NASA

Irudian, NASAk lortutako supernoba baten argazkia. Hain juxtu, G292.0+1.8 supernoba dugu honakoa.

Benitezek azaldu zuenez, «inortxo ere ez zen ohartu Maizek ikertu duen *Scorpius-Centaurus OB Asoziazioa* deitu izar

konglomeratua duela bi milioi urte Lurretik hain gertu egon zitekeela».

Supernobak izar masibo ba-

ten erregai nuklearra ahitzen denean sortzen dira. Guztira, azken 11 milioi urteetan 20 bat supernoba eratu dira.

UNIBERTSOAREN SORRERA

Big Bang-a uste baino bortitzagoa izan zela diote

Atzo NASAk Washingtongo egoitzan New Yorkeko Unibertsitateko astronomo talde batek ezagutzera eman zuenez, unibertsoari sorrera eman zion Big Bang fenomeno argi apoteosi eta izarren sorkuntzarekin hasi zen. Gainera, uste baino eztanda bortitzagoa izan zen. Aurkikuntza Hubble Espazioko Teleskopioan hartutako irudietatik abiatuta egin dute.

Orain arteko teorien arabera izarren sortze prozesua Big Bang-a agitu zenetik —duela 15.000 milioi urte— intentsitatean handitzen joan zen. Orain 10.000 milioi urte, ordea, goreneko maila iritsi eta pixkanaka, egun arte, moteltzen joan da.

Aitzitik, Kenneth Lanzetta ikertzailea buru duen lantaldeak dioenez, Big Bang gertatu ahala agitu ziren leherketak, olde bortitz batean —uste zena baino lau aldiz bortitzago—. izarren sortzeak orduan izan zuen punturik gorena; gero, mila milioi urtez mantendu eta gutxinaka indarra galtzen joan zen. Esne Bidea, Eguzkia eta Lurra unibertsoa hozteko prozesuan zela sortu ziren.

JESUS MAIZ APELLANIZ

NASAREN SPACE TELESCOPE SCIENCE INSTITUTUKO ASTROFISIKARIA

ZIENTZIA

«Supernobaren teoriak ikusmin handia sortu du; egun osoa munduko kazetariei kasu egiten ematen dugu»

J.M. Sarasola | DONOSTIA

NASAREN Space Telescope Science Institutuko astrofisikaria da Jesus Maiz Apellaniz donostiarrak. Egunotan AEBetako American Astronomics Society egiten ari den bilkuran teoria bat aurkeztu du beste bi ikertzaileekin batera. Hauen arabera duela bi milioi urte supernoba bat Lurraren ondotik pasatzeak kalte handiak eragin zizkion ozono geruzari. Maizek posta elektronikoz laburtu dio bere teoria EGUNKARIARI.

■ **Supernobaren teoria apailatzeko zientziaren hainbat alor uztartu dituzue, hala nola, astronomia, geologia, paleontologia...**

Bai. Egileotako bi —Narciso

Benitez espainiarrak eta biok— beste alor zientifikoe-tan esperientzia dugun astrofisikariak gara. Hirugarrena, Matilde Cañelles espainiarra Biologian doktorea da. Hirurok ere zientziako ia arlo guztien grina bizia dugu... Gure teoria osatzeko baliagarriak izan zaizkigu eremu horiek guztiak.

■ **Zer-nolako harrera izan du zuen teoriak?**

Aste honetan aurkeztu dugu eta ikusmin handiarekin hartu dute. Egun osoa munduko kazetariei kasu egiten daramagu.

■ **'Scorpius-Centaurus OB Asoziazioa' deitu supernobak benetan Lurra jo zuen, ala hurbil pasatzean izpi kosmikoek eragin zituzten ozono geruzako aldaketak?**

Ozono geruzaren zati baten suntsiketaren eragileak izpi kosmikoak izan ziren. Geroago, ozeanoen hondoan hainbat material metatu ziren. Hori gas eta hauts euri jasa ia haute-manezin gisa agitu zen.

■ **Zein neurritaraino iritsi zen ozono geruzako kaltea?** Hori oraindik argitzeke dagoen galderetako bat da.

■ **Zer beste ondorio eragin zituzten supernobak?**

Itxura batean, ozono geruzaren suntsiduraren ondorioz erradiazio ultramoreak fitoplanktonaren zati handi bat hil omen zuen. Horrek ozeanoetako elika-katea aldatu zuela uste dugu. Azken ondorioa, segur aski, molusku espezie batzuen desagertzea izan zen.



EGUNKARIA

■ **Zer dela eta otu zitzazun iraganeko arlo hori iker-tzea?**

Gure galaxiaren planoarekiko norabide perpendikularrean izar masiboak espazioan nola banatzen ziren ikertzen zuen lan bat izan zen hasierako motibazioa. Arestian aipatu desagertzearekin lotura posiblea egin zuen Narciso Benitezek.

■ **Meteorito, supernoba eta espazioko beste gorputzek gure planetaren garapene-**

«Ideia abstraktuek eta itxuraz baliogabeek hainbat ondorio izan ditzakete gizateriarentzat»

an izan duten eraginaz misterio asko geratzen al dira?

Jakina. Adibidez, Lurrarekin talka egin dezaketen hurbileko asteroideen katalogo sakon bat egiteke dago oraindik.

■ **Zuek aurkeztutako teorie-tatik zer ikasten ahal dugu?**

Besteak beste, oinarritzko ikerkuntza babestu eta diruz laguntzea beharrezkoa dela. Zientzian, gutxien uste duzunean aurkikuntzaren bat egiten da eta hasierako ideia abstraktuek eta itxuraz baliogabeek hainbat ondorio izan ditzakete gizateriarentzat.

■ **Zer ikerketa duzu orain esku artean?**

Beste hainbat gauzen artean, gertuko galaxietako izar-formazio intentsuen eskualdeen ikerketa.